



**VILLA ONDARRAITZ  
D MAILA**

**JAIME INFANTEA 9**



**Egilea eta data: Luis Gutierrez Soto; 1926.**

**Deskribapena**

Familia biko etxebizitza (Beatriz infantea 7rekin) txalet bakartuan; behe oina, erdisotoaren gainean, gehi bi goi oin ditu. Bigarren oineko baoak inguratuz, material zeramikoan egindako dekorazio motiboekin entokatutako fatxada. Sargunez eta irtengunez osaturiko elementu bolumentrikoekin, lau fatxaden tratamendu homogeneoa, estilo erregionalista baten barruan. Jatorrizko proiektu komuna Beatriz Infanta 7rekin.

**Babes erregimena.**

- 1.- Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: elementu zeramikoak.
  - C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.